

# Frantziara



**BEÑAT MUGURUZA**  
**ASEGINOLAZA**  
 IRAKASLEA ETA IKERTZAILEA

U da honetan aurkeztu du Arnas Dezagun plataforma guraso talde batek. Batik bat eremu erdaldunetako jendea da, kezka batek batzen duena: umeak D eredura eraman, eta umeak etxeko hizkuntzaren arabera bereizten ez dituztenez, ume euskaldunak erdaratan diluitzen omen dira eskolan sartu bezain laster. Gainera, arraro senti daitezke gelan, desberdin, are baztertuta, eta gainerako umeekin komunikatzeko arazoak izan ditzakete. Eskatzen dute arnagunearen ideia eskolan txertatu eta etxeko hizkuntza euskara dutenak elkarrekin jartzeko gela berean.

Ni alde. Badakit gai arantzatsua dela, baina apustu sendoak egiteko garaia bada, nonbaitetik hasi behar. Euskaraz bizi nahi duenari aukera hori eman. Baina kezkatzen nau, besteak beste, bereizketak lekarkeen bazterketak. Taldea osatzen dugunean nor uzten dugun kanpo. Plataformaren jarraitzaile batzuei sarean irakurri dizkiedanek ere ez naute sobera animatu. Agian interneteko hizkera erasokorra da, edo lau ero anonimo, batek daki. Baina momentuz, pixka bat sentitzen naiz “futbola gusta-

Irunen eta Hondarribian bizi den ikasle andana joaten da egunero Hendaiara, Donibane Lohizunera, Urruñara. Seaskako ikastolak alde batera utzita

tzen zait, inguruan duena ez” posizioan bezala. Bietan patetiko samar, bietan koldar; alde egonda baina altuegi esan gabe, badaezpada ere.

Gaiari aurrez aurre heltzea eskertzen dut, edonola ere. Baina Gipuzkoako Bidasoan bada beste kontu bat. Ohiko EAEko eskolatze-aukeretatik kanpoko eredu bat ere baitago gurean, aski hedatua, eta gurasoari galdetuz gero, esaldi gurean ezagun batekin laburtuko dizu: “*Los míos van a Francia*” (“Nireak Fran-

tzia doaz”). Izan ere, Irunen eta Hondarribian bizi den ikasle andana joaten da egunero Hendaiara, Donibane Lohizunera, Urruñara. Seaskako ikastolak alde batera utzita, gurasoek aukeran dituzte B eredu moduko bat eta eredu frantses elebakarra.

Zergatik? Bada, beste hizkuntza bat ikasten omen dute horrela. Oraindik ere glamour ukitua duela esango nuke, gainera. Daturik ez dugu, zoritxarrez; konstatazio bat bai, ordea: euskal soziolinguista baikorrenen amets hezea, hau da, EAEko gazteen artean euskararen ezagutza unibertsala, gure inguruan ez da epe laburrean gertatuko, ume euskaldunak maiz egingo baitu topo bertako ume erabat erdaldunekin.

Frantsesa dotore ikasten dute, baina ai!, beste zerbait ere bada atzean nahitaez, lapurtar olderik ez baita inoiz antzinako Irungo A eta B ereduetara ikastera etorri egunero autobusean ordu eta piko eginda, espainiera den hizkuntza erraldoia menderatzeko. Fenomeno horren atzean benetan zer arrazoi dauden gustura jakingo nuke; zeren bila doazen, edo zerengandik ihesi. ●

**Basherrri**  
 sarea  
 GIPUZKOAKO KONTSUMO TALDEA ETA KOOPERATIBAK

**Elika gaitezen irizpideak kontuan hartuta eta amalurra zainduz**

655709043 | [info@basherrisarea.eus](mailto:info@basherrisarea.eus)